



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Igandea  
2010-07-18

VIII. URTEA 2.055. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Eguraldiaren erruz Ehunmilak lasterketa oso gogorra suertatu da

**KIROLAK** Antolatzaileen esanetan parte hartzaileen erdiak ez du amaituko Ultra Train proba

**AMEZKETA** Iker Karrerak proba bertan behera utzi du, ia bi orduko aldeaz lasterketa buru zihanean 4-5



Iker Karrera amezketarra Mandubian. Karrera irabazteko faborito nagusia bera zen. ION IZAGIRRE

## Rebordinos, Zinemaldiko zuzendari berria

**GAZTELU** Mikel Olaziregiren lekukoa hartuko du aurtengo Donostiako Zinemaldiaren ostean 5

## Patxi Caminosek erorikoa izan du

**ABALTZISKETA** Txindokiko marka ahalegina bertan behera utzi beharrean aurkitu da 3

**ODEI GIL**  
TXIRRINDULARIA

«Gehien atsegin dudana errepidea da, baina emaitza hobeak lortu ditut pistan»

**ASTEASU** Euskadiko Pistako Txapelketan hiru domina irabazi ditu eta Espainiakoan, Euskadiko selekzioarekin, urrezkoa lortu du 6



## Marea Gorria



### » Uzturretik

Iraitz Lizarraga

**E**zin esan oraingoan zutabera-ko gaia aukeratzeko momentuan zalantza izpirik izan dudarik: izan ere, azken aste honetan, inoiz

baino gehiago, kolore bakarra ikustera behartu gaituzte: gorria, eta ondorioz, etorkizuna beltza. Gorria eta beltza, zezenek bezalaxe: hara! Osborneko zezena bezalaxe...

**Azken aste honetan, inoiz baino gehiago, kolore bakarra ikustera behartu gaituzte: gorria**

Etxetik urrun, baina hala ere nortasun propioa duen herrialde

batean harrapatu nau ditzosozko partiduak: hemengo euforia eta eromena ikusita ez nuke Madrilen Cibeles inguruko giroaren usainik ere hartu nahi!

Bene-benetan beldurgarria deditzot jolas ximple batek honelako pasioak piztea, nazionalismo errazionaltasunaren puntu goreneraino... Masa boteretsua dena emateko prest koloreen arteko gudan.

Mundu honetan arrazoiaren mugak aspaldian gaingintu ziren baina aurreko asteetako mobiliza-

zioak marka guztiak hautsi ditu ene ustetan: gizarte injustizia batek, lan baldintza hobek eskatzeak, norbanakoarekiko begirunea

**Iniesta jaunari monumentu bat, Espainia krisi ekonomikotik ateratzeagatik**

erreindikatzeak... ez du inoiz hainbat jende mugiarazi, eta hala bada, ederki estali digute.

Batasuna eta kohesioa inolaz ere mantentzeko gai ez den estatuari ederki atera zaio oraingoan jokaldia: espainiar izaerari, *paella*, *toros*, *flamencoz* gain, *gooooo*

*ooooo*!!! eta *Campeones!!!* gehitu beharko diogu hemendik aurrera. A! Eta ahaztu gabe, Iniesta jaunari monumentu bat, Espainia krisi ekonomikotik ateratzeagatik; hori bai, monumentuaren kostua zergen bidez guztion artean ordainduko dugu, espainiar sentitu ala ez, futbolzale izan ala ez.

Batzuentzat ametsa izan dela dirudiena, amesgaizto gorria bezala bizitu dut nik behintzat.

Beldurra besterik ez dut sentitzen halako euforia irrazionalaren aurrean eta orain zer, beste lau urtetan jasan beharko dugu marea gorria? Txapapote zikin hark baino tabarra handiagoa emango digu!!

## Giro euritsu eta alai azokan

**Tolosa** » Udako produktuak ikus daitezke mahaietan, nahiz eta udaberriko batzuk ere jarraitzen duten.

PABLO ALBERDI

Azoko euriak dexente lagundu zuen Tolosako azokaren giroa piztuzten. Bisitari askok Tolosan geratzea aukeratu zuten hondartza edo mendira joan beharrean, eta zerkausitik bueltaxka egitera animatu ziren, giroa alaituz.

Hantxe izan ziren asteroko ekoizle eta saltzaileak, beraien postuetan. Zerrenda ez zen batere eskaxa izan: tomatea, Ibarrako piparra, leka edota azelga izan ziren nagusi mahaietan. Oraindik ikusi ditzakegu udaberriko barazki batzuk, illarra edota babaren kasu, baina zerrenda guztiz udakoa suertatu zen.

Perretxiko zerrenda joan den astekoa izan genuen, baina egun hauetako euriak mendietan lagunduko duela dirudi.



### » ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
<b>Landareak</b>		
Alegria	1,50	2,00
Geraneoa	2,00	-
Menta	1,50	6,00
Albahaka	1,50	6,00
Zainzuria	2,80	-
Salbia	1,00	1,20
Berbena	3,00	-
Zilantroa	1,50	-

### BERTAKO PRODUKTUAK

<b>Perretxikoak</b>		
Onddoak	30,00	-
Ziza horia	20,00	-
Gibelurdina	30,00	-
Onddoak poteetan	9,00	-
Senderuela	20,00	-
Zizak	10,00	36,00
<b>Fruta</b>		
Kiwia	3,50	-
Errezil sagarra	2,00	4,00
Urra	2,00	3,00
Intxaurrea	2,50	4,00
<b>Barazkiak (kiloa)</b>		
Tipula berria	1,50	-
Babarrun zuria	8,00	-
Tomatea	3,25	4,00
Ilarrak	10,00	12,00
Babak	3,00	-
Porruak	1,00	4,00
Tolosako Babarruna	10,00	12,00

Bainak	3,00	4,00
Patata berria	1,50	2,00
<b>Barazkiak (sorta)</b>		
Ziazerra	1,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	5,00
Espinaka	2,00	-
Porrua	1,50	3,00
<b>Barazkiak (unitatea)</b>		
Eskarola lisua	1,00	1,50
Eskarola rizatua	1,00	1,50
Azalorea	1,00	1,25
Letxuga	0,50	0,80
<b>Gaztak</b>		
Gazta berria	17,00	-
Ardigazta	14,00	24,00
Behigazta	8,00	9,00
Ardi-Behi gazta	11,00	-

### PRODUKTU EKOLOGIKOAK

<b>Barazkiak (Kiloa)</b>		
Kalabaza	1,60	3,04
Dilistak (lentejak)	2,40	-
Arroza	1,90	2,00
Azenarioa	2,00	2,50
<b>Besteak</b>		
Ahuntz gazta (200gr)	3,00	-
Ogia (800gr)	2,55	-
Arraultzak	3,50	-
Azukrea	3,35	-
Marmelada	3,00	3,60

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900



## Errusiatik Topic zentroraino

**TOLOSA** ■ Bikarte elkarteak antolatuta Topic-ek bisita berezia izan zuen atzokoan, Errusiatik etorri diren 47 haur elkartu baitziren Txotxongiloen zentroan. 6-16 urte bitarteko haurrak Euskal Herrian aurkitzen dira

uda igarotzen, hemengo familietan. Atzo Topic-eko erakusketak ikusi zituzten, ondoren tailerretan parte hartu zutelarik. Arratsaldean berriz, *Tamborecos* antzez-lana ikusteko aukera izan zuten. A. IMAZ

## Ibarrako Jai Herrikoietan amak, ama ez direnen aurka lehiatuko dira

### ERREDAKZIOA

Ibarrako jai alternatiboak abuztuaren 20an hasi eta 25ean amaituko dira. Udaletik aparte, herritarrek antolatutako jaietan ekitaldi berezi ugari egongo dira. Horren adibide garbia abuztuaren 22a, igandea, izango da.

Goizean, haurrentzat, Euskal Herriko eta Munduko jolasak antolatu ditu Xibak. Eguerdian, Ibarrako Sokatirazaleek desafio bilakatu den erakustaldia eskainiko dute. Ondoren Herri Bazkariaren txanda izango da, Iker Zubeldia eta Sustrai Colina bertsolariak bertan egongo direlarik. Baita herriko bi musikari ere: Xantos eta Juan, azken hau ibartar bilakatu den mexikarra dugu. Herri Bazkaria esperientzia handia duten Ibarrako sukaldariak prestatuko dute. Oraingoz menua ezkutuan gorderik omen dute gainera. Bazkarira joan nahi dutenek, izena emateko zereendak herriko hainbat tabernetan aurkituko dituzte.

Ezusteokoin jarraituz, Eneko Aritzaren Lagunak taldeko kideek *Sua* filmaren inguruko azken albisteak plazaratuko dituzte iluntzean, emanaldi berezi baten bidez.

### Amak, ama ez direnen aurka

28 sokatiralari gogor entrenatzen ari dira azken aste hauetan. Haue-tatik 14 amak dira. Haurra eduki dutenen eta ez dutenen arteko erakustaldia, desafio itxura hartzen ari da. Alde batetik, «uste baino tiratzaile gehiago» elkartu direlako eta bestetik, ama direnak giroa berotu nahian dabiltzalako: «Erraz irabaziko dugulakoan gaude. Tiraldiak irabazteko sufritu egin behar da, eta guk hori zer den, eurek baino hobeto dakigu».

28 sokatiralari lau taldetan banatuko dira eta ligaxka moduan jokatu dute lehia. Ondoren, Herri Bazkarira joango dira denak, desafioak alde batera utzi eta jaiaz gozatzera.



Jaietarako entrenatzen. HITZA



## Jo eta su Bonberenea Txapelketan

**TOLOSA** ■ Bonberenea V. Futbol Txapelketa jokatu zen atzokoan. Aurten 8 taldek hartu dute parte eta partidak Bonberenean dagoen zelaietan jokatu ziren. Eguraldiaren ondorioz zutik egoteko lanak izan baldin bazituzten ere, ederki ospatu zituzten golak lokatz artean. ASIER IMAZ



Patxi Caminos Larraitzeko irteera puntuan. A. IMAZ

## Caminosek erronka bertan behera utzi du

### ERREDAKZIOA

Atzo, 17:00ak puntuan zirenean irten zen Patxi Caminos Larraitzeko langatik. Une horretan Txindokiren tontorra ez zen ikusten, behe lainoa nagusi baitzen. Bidea bustia eta erabat lokaztua zegoen eta honen eraginez ezbeharrak gertatu ziren. Patxi Caminosek lehen igoera 50 minuturen inguruan egin zuen eta beheraka zetorrela, irrist egin eta kolpea hartu zuen bizkarraldean.

Txindokiko marka Iker Karrera amezketarrak dauka, 11 aldiz igo baitu mendia 24 ordutan. Caminosen helburua marka hori haustea zen.

**Gidariak** behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko.  
Postu finakoak erakunde publikoetan.  
Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

**Lan publikoetarako** zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira.  
Lanpostu finakoak.

600-97 74 95

**Telefonistak/harreragileak** behar dira eraikin publikoetarako.  
Postu finakoak.  
Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Baserri edo borda bat hartuko genuke alokairuan. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 91 10.

### SALGAJ

■ **Garajea.** Tolosan garaje itxia salgai. lurre auzoan. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 658 70 43 18.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Tolosako Udala**


IRAGARKIA

JABETZA ERREGIMENEA ADJUDIKATZEKO  
VOITH-GOROSTIDI EREMUKO ETXEBIZITZA  
TASATUEI LOTUTA EZ DAUDEN  
GARAJE PLAZEN ZOZKETETA

- Eguna: 2010eko uztailaren 21a, asteazkena.
- Ordua: 19:00-ak.
- Lekua: Udaletxe Pleno Aretoa.

Tolosan, 2010eko uztailaren 15ean  
ALKATEA  
Jokin Bildarratz Sorron





Imanol Aleson azkoitiarrak irabazi du lehen aldiz jokatu den Euzko Bidea Ultra Triatloia; Amezketako pilotalekuan jarri zuten ibilbideko anaia guneetako bat. GORRIBERTZALEKUA

# USTE BAINO GOGORRAGO

**Kirolak** » Berez zituen zailtasunei eguraldiaren aurreratu zaito Euzko Bidea Ultra Triatloia; faborito Tolosaldeko bat bazen ere Urola Kostara joan da garaipena.

### ENTZUTZA

Insek ez zuen esan erraz izango zenik, eta dantak erakusten duten bezala, askorentzat uste baino gogorrago izan da. Parte-hartzaileen orduak ere ez dute lotu Euzko Bidea proba amaitzeko. Izatez, probaren luzeragatik eta maldengatik zaila izan da, eguraldiak baldintza gogorrago zituen.

«Ia hasieratik, hau da, Bessainetik, behe lanoa eta euri langarria izan ziren protagonista ibilbidean. Honekasko zailtu zuten korrikalari lanak, eta zenbait arazo ere ekarri zituen. Jendeak, oro har, bidea aurkitzeko zailtasunak izan ez bazen ere, izan ziren galdutakoak. Bestalde, askok adierazten zuten arazoa, mendiko tokitan hozta ere pasatzen.

### Urola kostako korrikalariak onenak

Iker Karrera faboritoa, Etxegaraten erretratatu ostean, Imanol Aleson azkoitiarra eta Joseba Albionari zuzen jarri zuten lasterketa-errendaren zailtasunak.

«Ia nagusiak baziren ere, emakumeokotan nafar bat izan zen. Nerea Martinez irundarra, sailkapen orokorra errepikatuz gero, zuzen jarri izan zen San Adriatik igarotzen. Antolatzaileen esanetan, oso laster eta ona egon zuten eta lan bikaina. Azkenik, 15 ordu eta erdi inguru behar izan zituen nafarrak.

**Gorriko bi handietan, etxeokak irabazle**  
Herenegun 23:00etan abiatu ziren Bessainetik Gorriko bi Handiak proban parte hartu behar zuten 140 korrikalariak.

Gizonezkoetan helmugara iristen lehena, Xabier Larrión Bessaindarra izan zen. Eguerdiko 12:40 inguruan iritsi zen Bessainera, 13:39:58ko denborarekin. Haren zailtasunak iritsi ziren Ernesto Argueta eta Aitor Urbietak. Emakumezkoetan ere, gaineratuz izan ziren nagusi; Elena Calvillok 15:36:48ko denborarekin irabazi zuen, eta Urola Kostara joan da garaipena.

### SAILKAPENA

#### GORRIKO BI HANDIAK

**Gizonezkoak**  
1. Xabier Larrión (13:39:05).  
2. Ernesto Argueta (13:39:11).  
3. Aitor Urbietak (14:33:08).

**Emakumezkoak**  
1. Elena Calvillo (15:36:48).  
2. Monica Grajera (16:16:26).  
3. Irene Iruetagoiena (16:16:27).

#### EHUNMILAK

**Gizonezkoak**  
1. Imanol Aleson (25:14:18).  
2. Iker Urizar (26:03:09).  
3. Joseba Albionari (26:04:54).

**Emakumezkoak**  
1. Elena Calvillo (15:36:48).

luntariek eta Gaurteko Gorrikoek lan handia egin zuten. Uneoro gaitzak ongi jostatzeko eta parte-hartzaileak zaindatzeko arduratu ziren. Proba amaitzeko, lasterkari gehienak hitz onak besterik ez zituzten izan antolatzaileentzat.

Hurrengo probetan gertatzen den bezala, bihar bat izan arren, festa ere birtuzten da. Lasterketa igarotzen zuten gune eberdinetan jende ugari bildu zen parte-hartzaileak animatzeko. Bestalde, bo-

**TXOKOR hitza**  
Gaurko irabazlea: **Axun Mujika Ezkurra (Villabona)**  
Afaria jasotzeko, Azokako txarteldegira hurbildu harpidedun txartelarekin.  
sarrerak eskuratzeko deitu: 943-65 56 95 telefono zenbakira

## la ibilbide guztian buru izan eta gero, Karrera, proba utzi behar izan du



02:35 aldera iritsi zen Karrera Tolosaldeko Usabal korrikalariak. L. ERREZA

**Amezketak** » Hamketan sentitzen zituen kalabreen ondorioz, Etxegaraten lasterketa utzi erabaki zuen atzo.

### EREDUKAZIOA

Proba lasterka antolatzaileek, mendizalek nahiz zaleek Iker Karrera amezketara jotzen zuten faborizotzat. Lasterketa hasi berri, kilometro gutxiara, erakutsi zuten eskualdekoak hau zerbitzengatik zela, izan ere, Zumarragara iristen orduko aldea ateratzen ziren bigarren zeharretan, eta kilometroak aurrera egin ahal aldea handituz joan zen.

Txoko zaparrada batekin eman zioten ongietorri Usabal korrikalariak. 02:35 aldera iritsi zen bertara. Kontroli guneko eginhartzailek bera ostean, zerbitzua, luze den egun eta bidaiari jarraitu zion. Amatek, berriz, Alesonari gaitzak ongi jostatzeko eta parte-hartzaileak zaindatzeko arduratu ziren.

Proba amaitzeko, lasterkari gehienak hitz onak besterik ez zituzten izan antolatzaileentzat. Hala, eskerrak eman zizkieten egindako lanagatik, etaaldi berarekin zuzen izan zuten. Usabal korrikalariak, etaaldi berarekin zuzen izan zuten. Usabal korrikalariak, etaaldi berarekin zuzen izan zuten.



Atzo aratsaldean jende ugari hurbildu zen Larraztera, 1. RAYZ

## Jose Luis Rebordinos izango da Zinemaldiko zuzendari berria

**Gaztelu** » Mikel Olaziregiren lekukoa hartuko du eskualdekoak; datorren urteko jaialdia antolatzeaz arduratuko da.



Jose Luis Rebordinos izango da Zinemaldiko zuzendari berria. ERREZA

### EREDUKAZIOA

Arzo jakitera eman zuten, 2016ko, 58. Zinemaldia izango da Mikel Olaziregik zuzenduko duen azkena. Datorren urtean eskualdeko batek, Jose Luis Rebordinos berrak zuzenduko du bere lekua.

Hamur urte izan da zuzendari Olaziregik, eta orain, arazo personalengatik kargua utzi erabaki du. Victoria Eugenia antzokian egindako bilera batean ostean aho batez hartu zuten erabakia, 2016ko urtararen lehen hartuko du kargua.

Rebordinos lehenagotik ere, Zinemaldiko zuzendari izan da. 2010an, 58. Zinemaldia zuzenduko duen zuzendari izango da. Dena den, irailaren 17tik 25era bitartean ospatuko den 58. Zinemaldian, oraindik ere, berak egingo ditu zuzendari lanak.

Mikel Olaziregik hileta batek zuzendatzen esaniz, arazo personalengatik, kargua utzi nahi zela. Dena den, irailaren 17tik 25era bitartean ospatuko den 58. Zinemaldian, oraindik ere, berak egingo ditu zuzendari lanak.

**MERKE ALDI Aurreratu**  
%20  
Lehen: 31,53 € Orain: 25,22 €  
Lehen: 19,83 € Orain: 15,86 €  
Lehen: 66,12 € Orain: 52,9 €  
Lehen: 28,48 € Orain: 22,78 €  
Lehen: 57,77 € Orain: 45,74 €  
Lehen: 28,48 € Orain: 22,78 €  
Euzko Herriko Plazako orrialdea | ERREZA PLAZA | Euzko Herriko Plazako orrialdea

## E Elkarrizketa

ODEI GIL › Txirrindularia



ITZEA URKIZU

## «Zaila da ikasketak txirrindularitzarekin uztartzea»

**Txirrindularitza** › Odei Gil txirrindulari gaztearekin aritu gara Euskadiko eta Espainiako txapelketetan egindako lorpenez.

## ITZEA URKIZU

Odei Gilek (Asteasu, 1992) domina sorta ederra bildu du aurten etxean. Maiatzean Euskadiko Pistako Txapelketan hiru domina irabazi zituen Irungo Txirrindulari Elkartearekin taldeka nahiz banaka, eta uztaile hasieran Euskadiko selekzioarekin Espainiako Txapelketan urrezko domina lortu zuen taldekakoan.

### Zenbat urterekin hasi zinen txirrindularitzaren munduan?

Gu lehen Donostian bizi ginen, eta handik Asteasura etorri ginenean, segituan hasi nintzen. Benjamin mailan aritzen nintzen, baina ni baino hiruzpalau urte gehiago zituztenekin. Hamabi urte daramatzat jada.

### Hamabi urte hauetan zenbat taldetan aritu zara?

Irrintzi taldean hasi nintzen, bertako taldean, baina desagertu egin zen eta orduz geroztik Irungo Txi-

rindulari Elkarteantabil. Publizitate eta babesleak aldatu izan ditugu, baina taldea berbera da.

### Eta zergatik bizikleta?

Hori galdetzen diot nik neure buruari sarri, asko sufritzen da eta! Egia esan ez dakitzehazki zergatik aukeratu nuen txirrindularitza. Familian ez dut txirrindularirik, eta gogoia nuelako hasi nintzen, probatzeagatik-edo. Emaitza onak lortzen nituela ikusi nuen, postu onetan amaitzen nituela lasterketako. Horrek motibazioa pizten dio edonori, eta gaur arte jarraitu dut.

### Euskadiko txapelketan nahiz Espainiakoan irabazitako dominak pistako frogetakoak dira. Pistako txirrindularitzaz gain, errepidekoan ere arituko zara, ezta?

Bai, noski. Egia esan, berez pista errepiderako prestakuntza gisa erabiltzen dugu. Horretaz gain, zirklokresean ere aritzen naiz.

### Eta modalitate bat aukeratzeko-tan?

Beharbada gehien atsegin dudana errepidea da, leku bakoitzaren arabera asko aldatzen delako. Hala ere, ni pistan aritzen naiz hoberean. Gogoratzen dut duela urte batzuk pista ez nuela batere gustuko baina emaitza onenak bertan lortzen ditudanez, horretan aritu beharko dut.

### Honen harira, profesionaletarako jauzia nola ikusten duzu? Zaila al da maila horretan leku bat egitea?

Oso-oso zaila ikusten dut. Ordu asko eskaini behar zaizkio, eta ikasketetan murgilduta dabilenarentzat are zailagoa da kirol honek eskatzen duena liburu arteko lanarekin uztartzea.

### Dena den, txirrindularitzan profesionaletan hasten direnak helbideak izan ohi dira beste kirol batzuetan baino.

Bai, hala da. Ni esaterako, datorren urtean afizionatuen mailara pasatuko naiz. Hemen, lehenengo urtean kategoriara egokitu behar izaten da, bigarren urtean lehiari sartzeko aukera gehiago izaten dira eta hirugarren urtean eman behar da saltorik handiena. Hor badira bizpahiru urte maila gorenerako prestatzeko, eta aukera galduz gero txirrindularitzatik bizitzeaz ahaztu zaitezke.

### Lehen aipatu duzu oso kirol gogorra dela txirrindularitza. Baloratuagoak diren beste kirol batzuk

### baino ahalegin eta esfortzu gehiago eskatzen du bizikleta gainekoak?

Bai, dudarik gabe. Nolabait esanbada, bizitza soziala mugatzen ditu. Egutero bi ordu eskaini behar zaizkio gutxienez, asteburuak barne. Ikasketak ere hor daude eta etxean ere zerbait egin behar izaten da. Azkenean, etxera iritsi eta gogo gutxi izaten da kalera irteteko.

### Janaria ere zorrotasunez banatu beharko duzue, ezta?

Bai, berez bai. Nik zorzea dut eta ez ditut kiloak erraz hartzen, beraz, gutizientzako leku pixka bat izaten dut. Ezarritako pisutik pasatzen hasten naizela ikusten badut, orduan gehiago begiratzen diot janariari. Lasterketetan gabiltzan izaten da dietarik zorrotzera, pasta, oilkhoa eta arraina besterik ez baitugu jaten.

### Eta entrenamenduei dagokienez zein da denboraldiko garairik gogorra?

Niretzat garairik gogorra orain hasten da, udan. Ikasketei lehentasuna ematen diet nik, eta behin ikasturtea amaitutakoan hasten naiz buru-belarri txirrindularitzarekin. Adibidez, Gipuzkoako Itzupahiru urte maila ona erakutsi nahi nuen, baina ez nuen denbora gehiegirik izan prestatzeko, pare bat astez selektibitateko frogarako ikasten aritu bainintzen. Laster Euskadiko Txapelketa dugu eta ea zer moduz irteten den.

### Beraz, udako oporretan lanean jarduten zarete.

Bai, gogoia eta motibazioa izaten dugu lehiatzeko hala ere. Ikasturtean zehar erdizkako entrenamenduak egin nituen, denbora nuenean bakarrik aritzen nintzen. Aste bat edo bi bakarrik hartu nituen lasterketa bakoitzerako, eta horrela arituta laugarren, zazpigarren eta zortzigarren postuak lortu nituen. Hori ikusita, nire denbora erabat entrenamenduei eskainita emaitza hobek lortu ahal izango ditudala pentsatzeak indar handia ematen du.

### Frantziako Tourra puri-puritan dagoen honetan, pronostikorik?

Txantxetako modukoak da orain Tourra. Ez dakit, logikoena Alberto Contadorrek irabaztea litzateke gaixorik egon den arren. Gero, beti hor egongo dira Andy Schleck eta beste faboritoak, baina nire iritziz Contador izango da garailea.

### Eta lehen euskalduna?

Nik Amets Txurrukarerekin itxaropena nuen, baina klabikula puskatu eta lasterketa utzi behar izan du. Bestalde, aurten maila polita erakusten ari da Arkaitz Duran. Mutil hau jubencil mailatik zuzenean profesionaletara igaro zen, eta nahiko ondo dabil bere lehenengo Tourra izateko.

### Joan den astean jakin genuen Leire Olaberria txirrindulariak emakumeen Giroa utzi behar izan zuela min hartuta. Ikusten al duzu txirrindularitzan emakumea bere lekua egiten ari dela?

Bai, noski. Zizurkilen urtero antolatzen da lasterketa bat, eta nire ustez urte urte emakumeen parte-hartzearekin egiten da. Gainera, gauzak argi esan behar badira urtero-urtero Espainiako Txapelketan eta beste zenbaitetan, Euskadiko selekzioak ez litzuke hainbeste domina lortuko neskenegatik ez balitz. Aurten adibidez, neska batek zazpi probetan parte hartuz lau urte eta bi zilar lortu ditu; beste batek, berriz, urte bat, zilar bat eta bi brontze. Eta urtero izaten da horrela, nahiz eta aurten mutilok maila polita eman dugun. Euskadiko selekzioan maila ona dago, baina ranking bat egingo balitz laugarren postuaren inguruan ibiliko ginateteke.

### Azkenik, gaur egungo gazteek txirrindularitzarekiko duten interesa nola ikusten duzu?

Egia esan, orain kadete mailan gertatu asko dabilta baina ni hasi nintzen taldea desagertu egin zen jendea pixkanaka uzten joan zelako. Unai Artola, Ander Altuna eta ni bakarrik geratu ginen. Gaur egun haur eta gazte gehienek futbolarri begiratzen diote, eta gertatu izan zait gaztetxoaren bati txirrindularitzan hasteko gomibetea egin da ezezkoa ematea, futboleko hobeto kobratu eta gutxiago sufritu nahi dutela erantzunda. Umetatik horrelako ikuspegia izatea ez da seinale ona. Txirrindularitzak jende gaztea animatzea behar du.

Bidaia Agentzia  
**bidaide** sercom

# Asteasuko eta Alegiako jaiez gozatzeko azken eguna

**Jaiak** » Gaur bukatuko dira Alegiako Karmen eta Asteasuko Santamañako jaiak. Albizturen, gaur ospatuko dute Santa Marinako eguna.

## ERREDAKZIOA

Hiru eguneko festaren ostean, Alegiako Karmen Jaiak gaur bukatuko dira. Hala ere, gaurko eguna ekitaldiz betea dute eta bada zer ikusia. Baina Alegian bakarrik ez, Asteasun eta Albizturen ere, egun guztian zehar, jai giroa izango da nagusi. Hauen kasuan, Santa Marinako jaiak ospatuko dituzte.

Atzo Alegian, eguna goizean goiz hasi zuten batzuk. Beste askok ordea, eguna argituagatik ere, bezperako parrandari eusten zioten etxera joateko inongo asmorik gabe. Eguerdian partean, ohetik jai-kitakoak eta oheratu gabeak ikus zitezkeen kalean.

Oria ibaian, Arrantza Lehiaketa jokatu zen. 6 eta 14 urte arteko, 14 gaztek hartu zuten parte. Alebin mailan Barboetan lehena Jon Urruzuno izan zen 46 zentimetrokoa arrantzatuz. Infantil mailan, Beñat Lasa izan zen nagusi 51 zentimetrokoarekin. Amuarrainen artean berriz, alebinetan lehena, Mikel Carredano izan zen 42 zentimetrokoarekin eta infatit mailan Haritz Iraola gailendu zen 40 zentimetrokoarekin.

Eguerdian, Sagardo dastaketa izan zen sardina eta txorizo erreez lagunduta. Aurten, krisia dela eta, sagardoa edan nahi zuenak, eda-

lontzia euro bat ordaindu behar izan zuten. Asier Unsain eta Irma Karrera arduratu ziren herriko plazan trikiti doinuak jartzeaz.

Arratsaldean umeez beraien txanda izan zuten jolasetan parte hartuz. 19:00etatik aurrera, herri-tarren arteko Toka txapelketa jokatu zen. Unsain eta Karrera trikiti-txixa jo zuten eta jarraian Patata Tortilla lehiaketa izan zen.

Herri Afaria izan zuten sagardo-tegi menuarekin. Afalosteko kantaldia Ande Duhalderen eskutik izan zen. Ostean, Dj Imanol.

## Santamañako jaiak

Meza Nagusia izan zuten eta ostean, hamaiketako ederra egin zuten bertarautakoek. Bapo bete ondoren, bailarakoen arteko herri kirol saioaz gozatzeko aukera izan zuten eta giro polita jarri zuten. Eurria egin arren, jendeak ez zuen hutsik egin. Herri kirolak bukatu ostean, alde batetik, Mañukorta eta Peña-garikano bertsolariak eta bestetik, Izer, Alabier eta Lutxurdio trikitalariak izan ziren. Arratsaldeko kalejiraren ostean, gauean ere Izer, Alabier eta Lutxurdio trikitalariak jarri zuten musika goizaldera arte. Gaur, Asteasun ez ezik, Albizturen ere, Santa Marina eguna ospatuko dute.



Oria ibaian, 6 eta 14 urte bitarteko haurrek Arrantza Lehiaketa jokatu zuten. Partehartzaile guztiak. E. EZEIZA



Herriko Plazan sagardo dastaketa egin zuten. Txorizo eta sardina erreak banatu zituzten. E. EZEIZA



Neska eta mutilez osatuta, bailarako bi talderen arteko lehia izan zen. Zaku lasterketa egin zuten. E. MAIZ

## » GAURKO EGITARAUAK

### ALEGIA

#### Gaur

- **9:00.** GIROARTE dultzaina taldearen diana.
- **9:30.** Kalejira berezia, lehengo eta oraingo herriko txistulariekin.
- **12:30.** Txistularien alardea Txin-xarri abesbatza eta Sutarrri dantza taldeekin (tartean LUKAS LASARI eskertza ekitaldia).
- **18:00.** HERRI KIROLAK Larraituz auzoko plazan. Harrijasotzaileen V. TXINTXARRI SARIA:  
- Patxi Larretxea, Izeta II, Izeta III eta Ostolaza II  
- Aimar Irigoien, Unai Bertiz, Urtzi Telleria eta Izeta IV.  
Harriak: 125 kiloko kopa, 112,5 kiloko kubikoa, 100 kiloko zilindro-zaharra, 125 kiloko errektangularrak eta 100 kiloko bola.
- **Ondoren.** Gipuzkoako Lasto-aldatze Txapelketa.

- **19:45.** Bielorrusiako "BALLET ESTATAL DE VALENTIN DUD-KEVIC" dantza taldearen emanaldia plazan.
- **23:00-03:00.** Dantzaldia DRINDOTS taldearekin.
- **00:00.** TXINTXARRIAREN ERREKETA.

### JAI ALTERNATIBOAK

#### Gaur

- **Iluntzean.** Zagiardoa.
- **Ondoren.** Herriko bertsolarien saioa.

### ASTEASU

#### Gaur

- **10:00etan.** Andazarrateko XXVI. Igoera (Federatu gabeko txirindularientzat).
- **11:30etan.** Meza Nagusia.
- **Ondoren.** Herri kirolak: aizkolariak, Floren Nazabal, Ugaitz Mu-

gerza eta Jokin Alkizalete. Harri-jasotzaileak: Joseba Ostolaza eta Urdax Magunazelaia (12 urte). Laja eta Landakandak alaiturik.

- **18:00etan.** X. Zaldi Lasterketa.
- **Ondoren.** Trikitalariak eta Bertsolariak.

### ALBIZTUR


#### Gaur

- **12:30etan.** Meza Nagusia.
- **Ondoren.** Bazkaria Segoretxe-Berri jatetxean, Malbadi anaien trikiti doinuek lagundurik.
- **18:30etan.** Herri kirolak: iparraldeko jokoak (ingudea, lastoa,...) izango da eta etorkizuneko aizkolariak.
- **Jarraian.** Amaia Agirre eta Iker Zubeldia bertsolariak.
- **Afalostean.** Malbadi anaien trikiti doinuak eta Agirre eta Zubeldiaren bertsosok izango dira.



Bi taldeetako bikoteak, trontzan. E. MAIZ





26°  
16°

GOIZA	OSKARBI
ARRATS.	OSKARBI
BEROENA	27°
HOTZENA	16°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta/Idaia:** 687 410 022. anoeta/idaia@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra/Idaia:** 687 410 118. ibarra/idaia@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza/Idaia:** 687 410 118. leitza/idaia@tolosaldeko-hitza.info.


**Tolosa Herria Hedabideak** BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak.** **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

**Gipuzkoako Foru Aldundia**

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



## Edurne Pasabanen erakusketa

**TOLOSA** • Edurne Pasabani buruzko erakusketak atek ostiralean zabaldu bazituen ere, atzo egin zuten inaurgariazio ofiziala. Udal ordezkariekin batera, bertan izan zen protagonista nagusia, hau da, Edurne Pasaban. Autografoak sinatu ondoren, gelaz gela ibili zen

mendigoizale tolosarra. Bere bidaietako materialaz gain, argazki, irudi eta haurrek egindako marrazkiak ikus daitezke besteak beste Aranburu jauregiko erakusketan. Irailaren 12ra bitarte zabalik egongo da, 17:30etik 20:30era. A.I.M.Z

**A Agurrak**

**Zorionak Luar!**  
Txupetea utzi eta bi kandelatxoak itzaltzeko prest? Muxu potolo bat. Etxeoak.



**hitza** bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

www.tolosaldeko-hitza.info

**BERTAKO HEDABIDEAK**

**Leitzaaldeko kideak:** Tolosa, Villabona, Anoeta, Ibarra, Alegialdea

**Leitzaaldeko kideak:** Tolosa, Villabona, Anoeta, Ibarra, Alegialdea

## A Agenda

**Zinema**  
■ **Tolosa.** *Rabia* filma Leidor aretoan 19:30ean. Bihar, ikuslearen eguna, 20:30ean.

**Jaiki**  
■ **Asteasu.** Santamañak: 10:00etan Andazarrateko XXVI. Igoera (Federatu gabeko txirriindularentzat); 11:30ean Meza Nagusia; ondoren Herri kirolak (Floren Nazabal, Ugaitz Mugerza eta Jokin Alkizalete aizkolarik, Joseba Ostolaza eta 12 urteko Urdax Magunazelaia harri-jasotzaileak, Laja eta Landakandak alaiturik; 18:00etan X. Zaldi Lasterketa; ondoren trikitaliak eta bertsolariak; gauean Laja eta Landakanda eta gauerdian festei amaiera Tranpazuloaren jaitsierarekin.  
■ **Alegia.** Karmen Jaiki Egitarau ofiziala: 09:00etan Giroarte dultzaina taldearen diana; 09:30ean kalejira berezia lehengo eta oraingo herriko txistulariekin; 12:30ean txistularien alardea Txintxarri abesbatza eta Sutarri dantza taldeekin (tartean Lukas Lasari eskertza ekitaldia); 18:00etan herri kirolak Larraitx auzoko plazan (harriztasotzaileen V. Txintxarri saria; - Patxi Larretxea, Izeta II.a, Izeta III.a eta Ostolaza II.a, Aimar Irigoien, Unai Bertiz, Urtzi Telleria eta Izeta IV.a, Gipuzkoako Lasto-altxatze Txapelketa); 19:45ean Bielorrusiar Ballet Estatal de Valentin Dudkevico dantza taldearen emanaldia plazan; 23:00etik 03:00etara dantzaldia Drindots taldearekin; 00:00etan Txintxarriaren erreketak. Egitarau alternatiboa: Iluntzean zahagiardoa, gero herriko bertsolariak.

**Kirola**  
■ **Villabona.** XXXII. Usakume tiraketako Behar-Zana Sari Nagusia Izarre zelaian 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

» **GUARDIAKO FARMAZIAK**  
■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria katea, 3. 943 67 09 15.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar katea, 25. 112.

» **TELEBISTA**  
**28 Kanala**  
08:30. Ikusmira. 09:00. Nonochan. 09:30. Tolosaldean Gaur. 10:00. Klik. 10:30. Eltze. 11:00. Or ein! 11:30. Tolosaldean Gaur. 12:00. Kultur zulo. 12:30. Barrebusa. 13:00. Jarrapena. 13:30. Orfeoia Santa Klara. 14:00. Kafe t'ardi. 14:30. Gipuzkoako Kultura. 15:00. Kiroleroak. 15:30. Wazemank. 16:15. Klipak. (\*12:30etik 16:15erako blokea lau orduro errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Lagundu Udalbiltzaren kontrako epaketaren gastuei aurre egiten

DEMON ARTEAN OBUJITAZ ASKE!

EUSKAL HEKRIA

**Bai Euskarari!**

3035 0071 63 0711 24600